

[MADRIDEN ERE EZ DAGO ZERGATIK]

Madriden ere ez dago zergatik
erdaraz idatzi.

Erleak bezala
karreia dezagun eztia
etxera.

Baina ez du gure eztia
gozoa izateko
behar luken guztia.

Teknika eta diru
Migel Anjelen Moises
berri bat egin dugu
baina mintza dadien
ez diogu eskatu.

Herria “oh, qué país,
oh, qué hermoso!”
Ez ahal dute esango
mutua delako?

Batzu “mayoría silenciosa”z
hitz egiten dute
guk berriz minoria mutuz

Kanpoko zaratei eusteko
aislagarriak ifintzen
ditute [sic] zenbait lekutan

Herrikorik ez aitzekoz
ingura ginduten gurean.

Baina atzerritan ere
egin daiteke etxekoz.

Eta esan dudana
gure eztia oraindik
ez dela behar duena

Baina Madriden
mutuei kastellanoz
die irakasten.

Baina gure erlauntzean
langileak burrukan
alferren mesedetan.

Eta etxerako mutilak
kanpora bialtzen
ditugu oraindik
erdaraz ikastera.

Gero erdaraz
mintzatzen direlako
asarratzen gera.

Baina euskara ez da
hizkuntza bat bakarrik
izakera ere bada.

Herriko goraberak [*sic*]
nahiz erdaraz hitz egin
konpon ditzagun eusko era.

Baina atzerritarra
ez dakite ez eta
eusko erarik.

Eta Herritar askok
ahaztu egite dute
eusko era ere.

Eusko era gabe
ez du balio euskerak
baina eusko era
euskaraz egiteko
modu eder bat da.

Asteasuko eskola
ez da euskoerazkoa
Ez eta Getariako
portuan eregi zuten
arrantzale andrazkoen
iruditakoa.

Dantzak–eta ez eze
eskultura, pintura
arkitektura-ta ere
eusko era daitezke.

Baina eusko erarik ere
ez da ikasten.

Gure maixuak erruz
egin dire ospetsu
erdera eta erdal eratan
gutxi euskera ta
eusko eratan.

Baina gure maisuak
euskerarik eta
euskoerarik
ikasiko badute
universitate [*sic*]
euskalduna behardute [*sic*].

Bitartean jai dago
behera datorren
etxearen.